

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. HOTELAK ETA LANDETXEAK. 2020KO ABUZTUA


2020ko abuztuan, Euskadiko AEko hotel-establezimenduetan erregistratu diren sarrerek % 39,2 egin dute behera

Plazako okupazio-maila aurreko urtean % 79,6koa izan zen eta, 2020ko abuztuan, % 49,8koa, baina 2020ko uztailekoa baino ia ehuneko 8 puntu handiagoa

2020ko abuztuan, Euskadiko AEko hotel-establezimenduetan 216.967 sarrera egon dira eta 444.267 ostatu-gau. Alegia, urte artean % 39,2ko jaitsiera egon da sarreretan eta % 43,1ekoa ostatu-gauetan, Eustaten datuen arabera.

Datuek agerian uzten dute COVID19aren krisiak Euskadiko AEko hotel-sektorean duen eragina luzatu egin dela; hala ere, uztaileko datuak baino hobeak izan dira abuztukoak, orduan urte arteko % 45,2ko beherakadak antzeman baitziren sarreretan eta % 50,8koa ostatu-gauetan.

Ostatu-gauak Euskal AEko hotel-establezimenduetan lurralde historikoaren arabera



Aurreko hilarekin alderatuta, 2020ko uztailearekin, abuztuan 37.124 sarrera gehiago egon dira eta 103.891 ostatu-gau gehiago, uztailean baino. Jarduera pixkanaka suspertzen ari da, eta hala gertatzen ari da hiru lurralde historikoetan. Araban, 2020ko uztailean, 22.285 sarrera eta 40.275 ostatu-gau zenbatu ziren, eta, abuztuan, 28.761 sarrera eta 53.091 ostatu-gau. Bizkaian, 2020ko uztailean, 65.028 sarrera izan ziren, eta, abuztuan, 82.814; uztailean, 127.211 ostatu-gau, eta, abuztuan, 171.392. Gipuzkoan, azkenik, abuztuko sarrerak eta ostatu-gauak 105.392 eta 219.784 izan ziren, hurrenez hurren, eta, uztailean, 92.530 eta 172.890.

Krisiak aurtengo abuztuan aurreko urteko hil beraren aldean izan duen eragina ez da berdina izan hiru lurraldeetan. Araban sarrerak % 41,8 jaitsi dira eta ostatu-gauak, % 45,7, eta, Bizkaian, % 52 sarrerak eta % 53,0 ostatu-gauak. Gipuzkoan, berriz, urte arteko beherakada nabarmena izan da, baina ez hainbestekoa; sarrerak % 21,9 jaitsi dira eta ostatu-gauak, % 30,9.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia, betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2020ko Abuztua

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	2020/08	m/m-12 (%)	2020/08	m/m-12 (%)	2020/08	2019/08	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
							2020/08	p.p.*	2020/08	p.p.*	2020/08	m/m-12 (%)	2020/08	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	444.267	-43,1	216.967	-39,2	2,05	2,19	49,8	-29,8	55,3	-29,6	91,9	-21,83	50,8	-49,08
Estatukoak	315.854	-28,4	146.677	-21,2	2,15	2,37	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	128.413	-62,1	70.290	-58,9	1,83	1,98	-	-	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	53.091	-45,7	28.761	-41,8	1,85	1,98	46,8	-25,2	53,6	-25,7	68,9	-13,84	36,9	-41,78
Estatukoak	42.553	-37,3	21.819	-28,4	1,95	2,23	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	10.538	-64,7	6.942	-63,4	1,52	1,57	-	-	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	32.011	-53,0	16.694	-51,1	1,92	2,00	44,0	-26,9	54,2	-24,9	57,3	-21,36	31,1	-46,11
BIZKAIA	171.392	-53,0	82.814	-52,0	2,07	2,11	41,6	-37,6	48,2	-35,5	70,6	-27,77	34,0	-58,42
Estatukoak	129.922	-37,3	60.164	-34,0	2,16	2,27	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	41.470	-73,6	22.650	-72,2	1,83	1,93	-	-	-	-	-	-	-	-
Bilbao	100.432	-55,1	51.931	-52,6	1,93	2,04	39,9	-42,7	44,7	-42,0	71,7	-34,87	32,0	-66,41
GIPUZKOA	219.784	-30,9	105.392	-21,9	2,09	2,36	60,0	-22,9	63,8	-24,5	116,1	-23,79	74,1	-44,90
Estatukoak	143.379	-13,6	64.694	0,3	2,22	2,57	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	76.405	-49,7	40.698	-42,2	1,88	2,16	-	-	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	135.124	-27,6	63.111	-17,1	2,14	2,45	63,6	-25,7	66,1	-27,3	134,3	-31,72	88,8	-51,69

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea
Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Estatutik Euskadiko AEko hotel-establezimenduetan 146.677 bidaiariren sarrera egon dira, eta 70.290 sarrera atzeritarrena; alegia, 2019ko abuztuan baino % 21,2 eta % 58,9 gutxiago, hurrenez hurren. Atzerriko egoiliarren sarrerak sarrera guztien % 32,4 dira, eta 2019an, hil berean, ehuneko hori % 47,9koa izan zen.

Batez besteko egonaldia 2,05 egunekoa izan da azken abuztuan, 2019ko abuztuaren behetik, orduan 2,19 egunekoa izan baitzen, batez beste. Araban jaitsi egin da, iaz 1,98 egunekoa izan zen eta, aurtengo abuztuan, 1,85 egunekoa. Bizkaian ere batez besteko egonaldiak behera egin du (2,11 egun 2019ko abuztuan eta 2,07 egun 2020ko abuztuan). Eta, Gipuzkoan, joera bera da; batez besteko egonaldiak behera egin du (2019ko abuztuan 2,36 egun eta, pasa den abuztuan, 2,09).

Plazen arabera okupazio-maila dela eta, ehuneko 29,8 puntu egin du behera EAE osorako; 2019ko abuztuan % 79,6 izan zen eta aurtengo abuztuan % 49,8. Lurraldeen arabera, plazen arabera okupazio-mailak % 46,8koa, % 41,6koa eta % 60koa dira, hurrenez hurren, Arabaren, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren kasuetan, eta beherakadak –hurrenkera berean–, ehuneko 25,2 puntukoa, 37,6koa eta 22,9koa.

Eskuragarri dagoen logelako diru-sarrerak (RevPar) % 49,1 jaitsi dira 2020ko abuztuan, eta batez beste eguneko tarifak (ADR) % 21,8 egin du atzera.

Sektoreko errentagarritasun-adierazleak direla eta, eguneko batez besteko tarifa EAEko hoteletan 91,9 euro izan dira 2020ko abuztuan, urtebete lehenago baino % 21,8 baxuagoa. Batez besteko tarifa 68,9 euro da Araban (% 13,8 egin du behera), 70,6 euro Bizkaian (% 27,8 egin du behera) eta 116,1 euro Gipuzkoan (% 23,8 egin du behera).

Eskuragarri dagoen logelako diru-sarrerak (RevPar), hotel-establezimenduen okupazio-mailaren arabera, 50,8 eurokoak izan dira 2020ko abuztuan EAEn, 2019ko abuztuan baino % 49,1

txikiagoak. Araban, RevPar 36,9 eurokoa izan zen, 34,0 eurokoa Bizkaian eta 74,1 eurokoa Gipuzkoan.

Euskadiko AEn, oro har, hotel-jardueraren batekin izan diren establezimenduek 2020ko martxoan zeukaten maila berreskuratu dute, pandemiaren hasieran zeukatena, baina 2019ko abuztuko mailen azpitik. Zehazki, 532 hotel-establezimendu 2020ko abuztuan zabalik egon ziren egunen batean, alegia 2020ko uztailean baino gehiago, 510 izan baitziren. Baina, hala ere, 2019ko abuztuan jardueraren bat erregistratu zuen hotel-establezimendu kopurua (581) baino txikiagoa.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren hotel-establezimenduak. COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
2020	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Abuztua	532	88	55	20	203	33	274	35
Uztaila	510	109	55	20	192	43	263	46
Ekaina	372	246	46	29	141	94	185	123
Maiatza	188	430	20	55	80	156	88	219
Apirila	56	563	6	69	29	207	21	287
Martzoa	532	87	62	13	206	30	264	44
Abuztua 2019	581	31	68	7	223	10	290	14

Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Lurralde historikoen arabera, berriro irekitzeko joerak aurreko hilaren ildo berari heltzen dio, baina Arabak eta Bizkaiak ez dituzte lortu 2020ko martxoko irekiera-maila berak. Araban, 2020ko uztailean jardueraren bat izan zuten hotel-establezimendu berak erregistratu dira; zifra hori 2019ko abuztuan erregistratutakoa (68) baino baxuagoa da. Bizkaian, 2020ko uztailean 192 establezimenduk izan dute egunen bat zabalik eta, abuztuan, 203k. 2019ko abuztuan 223 izan ziren. Gipuzkoan 274 establezimenduk izan zuten egunen bat zabalik eta, hala, 2020ko uztailean (263) baino gehiagok; baina, hala ere, 2019ko abuztuan (290) baino gutxiagok.

Landetxeetan 2020ko abuztuan zenbatu diren ostatu-gauen kopuruak % 29,6 egin du behera, 2019ko abuztuaren aldean

Euskadiko AEko landetxeetan 18.355 sarrera izan dira 2020ko abuztuan, uztailean (14.054) baino gehiago. Baina, hala ere, 2019ko abuztuan erregistratutakoak baino gutxiago. Ostatu-gauak antzera egin dute gora uztailearen eta abuztuaren artean; 2020ko uztailean 44.051 izan ziren eta, abuztuan, 63.740. 2019ko abuztuaren aldean, hala ere, % 29,6 egin du behera ostatu-gauen kopuruak.

Lurralde historikoen arabera, Arabak, abuztuan, 3.007 sarrera eta 8.948 ostatu-gau erregistratu zituen; Bizkaiak, 5.234 sarrera eta 19.452 ostatu-gau, eta Gipuzkoak, 10.114 sarrera eta 35.340 ostatu-gau. Zifra horiek 2019ko abuztukoaren oso azpitik daude, bereziki Arabaren kasuan, baina agerian uzten dute hiru lurraldeetan ari dela jarduera berraktibatzen.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Abuztua

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2020/08	m/m-12 (%)	2020/08	m/m-12 (%)	2020/08	2019/08	2020/08	p.p.*
EUSKAL AE	63.740	-29,6	18.355	-22,0	3,47	3,84	48,8	-15,3
Araba/Álava	8.948	-37,3	3.007	-32,1	2,98	3,22	28,9	-15,7
Bizkaia	19.452	-30,7	5.234	-29,4	3,72	3,79	50,8	-14,9
Gipuzkoa	35.340	-26,6	10.114	-13,5	3,49	4,12	57,4	-14,9

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

COVID-19aren krisiak **landetxeetan** izan duen eragina hoteletan ikusitakoaren antzekoa izan da. Hala, abuztuan ostatua eskaini duten establezimenduen kopuruak gora egin du, eta 359 izan dira; 2019ko abuztuan, 385 izan ziren. 69 ostatuk itxita jarraitu dute, berriz, denboraldi osoan, eta, 2019ko abuztuan, 34 egon ziren itxita.

Modu berean, aurreko hilaren aldean, 2020ko uztailaren aldean, jarduerak gora egin duela ikusten da; izan ere, uztailan 351 ostatuk izan zuten jarduera eta, abuztuan, 359k. Uztailan, bestalde, 80 establezimendu egon dira itxita eta, abuztuan, 69.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren landetxeak. COVID19 aldia

2020	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Abuztua	359	69	93	12	105	24	161	33
Uztaila	351	80	88	17	103	28	160	37
Ekaina	285	143	68	37	87	42	130	64
Maiatza	167	260	30	75	54	74	83	111
Apirila	31	396	3	102	11	117	17	177
Martzoa	329	99	89	16	94	35	146	48
Abuztua 2019	385	34	96	6	115	12	174	16

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Oharra: Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, informazio hau zabaldu da, eta, haren bidez, hartutako neurriek sektorearen gainean izan dituzten ondorioak kuantifikatu dira.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62